



GAIA: MATRIKULEN ALTAK, BAJAK ETA LEKUALDATZEAK HAUR HEZKUNTZAN, LEHEN HEZKUNTZAN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Gasteizen, 2014ko irailaren 22an

Zuzendari jn/and. hori:

Ikasturtea hasi ondoren, beharrezkoa da gehienik mugatzea ikasle berriak onartzea zein beraiek ikastetxeen artetik mugitzea, horrela gelako ekintzan ahalik eta egonkortasunik handiena lortze aldera.

Hala ere, matrikulako alta eta bajak kudeatzea batzuetan saihestezina izango denez gero, idazki honekin batera doazkizun orrialdeetan ikastetxeek ondokoak kudeatzeko jarraituko dioten prozedura aurkituko duzu, **Haur Hezkuntzari, Lehen Hezkuntzari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokienez:**

- EAEra heldu berri diren ikasleen matrikulazioa.
- EAEko **beste ikastetxe batera lekualdatzea**, ezohiko eraz baimentzen denean.
- Ikasleen **bajak**.
- Ikastetxea esleitzea **eskolatu gabeko EAEko adingabeei**.

Kasu bakoitzean, adierazten dizugu nola erregistratuko diren kudeaketa akademikoko aplikatiboan aipatu gorabeherak, zenbait erabilgarritasunez; horietatik txikiagoak egingo dute nola familiek Ordezkaritzara mugitu beharra hala papera erabiltzea komunikazioan ikastetxeen eta Ordezkaritzaren artean kontu horietarako.

Bide batez gogora ekarri nahi dizut oso garrantzitsua dela gaurkotu eta betetzea kudeaketa akademikoaren aplikazioko ikasleen erregistroa, eta **eskatu zera egiaztatzea urriaren 31 rako:**

- Ikastetxe horretan **matrikulatutako ikasle kopurua** eta euren **izen-abizenen zerrendak** zuzenak direla.
- Ikasle bakoitzak dauzkala ongi esleituak **maila, hizkuntz eredia** eta **erlijioen irakaskuntza aukera**.
- **Oinarrizko datu pertsonalak** (jaiotza-eguna, sexua eta, 14 urteetatik aurrera, identifikazio ofizialeko dokumentu zk.), **seme-alabatasunekoak** (pertsonek tutoreak) eta **aurkitzekoak** (helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa) bete eta gaurkotuak daude.

Halaber, eskertuko nizuke guri helaraztea edonolako iradokizunik kudeaketa akademikoko aplikatiboan erabilgarritasunak sartzeko, ikastetxeen premiei hobeki erantzuteko xedez.

Azkenik, oroitarazten dizut arestiko gaiotarako Ordezkaritzarekin harremanetan jartzeko era:

Kudeaketa akademikoko aplikatiboaren funtzionamendua (CAU)		945 01 62 92
Matrikulazioa Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan	huisa022@ej-gv.es huisa013@ej-gv.es	945017228 945017221
Gure hezkuntza sistemara heldu berri diren ikasleak	huisa023@ej-gv.es	945017231
Iradokizunak kudeaketa akademikoko aplikatiboa hobetzeko	huisacen@ej-gv.es	945017234

Mila esker zure laguntzagatik.



Izpa: Juan Luis Aizpiri
Ikastetxeen lurralde arduraduna.

Oharra: Hala dagokionean, idazki honek aipagarri dituen matrikula aldaketak kudeatze aldera, aplikatu itzazu ikastetxeen zuzendaritzaren berriazko jarraibideak ikastetxe aldatzeko eskabideari buruz guraso bereizi edo dibortziatuen edo bizikidetzak bukatua duten izatezko bikoteen kasuan (ikus azken atala erantsita doazen orrietan).



EAE-RA HELDU BERRI DIREN IKASLEEN MATRIKULAZIOA

Jakingo duzunez, EAera heldu berri diren ikasleen matrikulazioa eskolatzeko batzordeari dagokio.

Batzorde horrek esleitzen du eskola postu bat bakarrik **Haur Hezkuntzako bigarren ziklo, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** mailetan, baina ez 2 urteko mailan edo derrigorrezkoaren ondorengo mailetan. Ez dago eskolatzeko bide honen bitartez ezein lagun 2014-15 ikasturtean matrikula aktiboa duenik.

Eskolatzeko batzordeari igorritako eskabideen kudeaketa osorik egingo da **kudeaketa akademikoko aplikatiboaren bidez eta bideratuko ikastetxeen bidez**.

Hori horrela, EAera heldu berri den familia baten edozein eskariren aurrean, **ikastetxeek erregistratu beharko dute dagokien eskabidea aplikatiboan**, baita ikastetxea bera eskatzen denean ere, edo zentro horrek postu liberrik ez daukanean.

Izapide horri ekiteko baldintza gisa, familiak **errolatzeko ziurtagiri familiarra** ekarri beharko du ikastetxera. Halako dokumenturik egon ezik, eta aurkeztu ezina denean, harremanetan jarri Ordezkaritzarekin.

Kudeaketa akademikoko aplikatiboan kargari ekiteko, **Matrikula / Eskolatzeko Batzordea** derizan menua erabiliko da, eta **Berria** botoia sakatuko. Haurren oinarrizko datuak bete ostean, **datu pertsonalen** fitxara joko da. Normalean, fitxa horrek ez du edukiko daturik alde aurretik beterik dagoenik, pertsona heldu berriak izanda, kudeaketa akademikoko aplikatiboan erregistratuak dauden ikasleak izan ezik, lehenago EAEn matrikulatuak egon izanagatik, aldi batean kanpoan egon ostean itzuli baldin badira.

Ziurtatu ezazu **eskatzailea** dagoela errolatuta **haurrarekin**, eta arduraduna dela **babesean**, eta erregistratuta geratzen dela **sakelako zenbaki** bat eta/edo **posta elektronikoko helbide** bat, biak eraginkorrak, jakinarazpena egingo denez gero mezu elektronikoz eta sms-ez.

Datu pertsonalen fitxa bete eta grabatuta geratzen denean, itxi egingo da eta pantaila batera joango da; bertan sartuko da **familiaren eskabidea**, eta **ikastetxe + hizkuntza ereduko hiru aukera ere** agertu ahal izango ditu. Halaber, badaiteke eskabidea igortzea ikastetxerik edo hizkuntza eredurik zehaztu gabe. Gehigarri gisa, familiak adierazi nahi dituen edozer azalpen jaso ahal izango da **ohar** atal batean. **Ikastetxeek** berezko beste **ohar** atal bat izango dute Ordezkaritzari jakinarazi nahi dioten edozein zehaztasunetarako eskabideari dagokionez.

Ikastetxeek ez daukate aplikatiboan non bete eskolatzeko eskatzen den maila. Jarraian adierazten da zeintzuk irizpideri jarraituko dien batzordeak maila esleitzeko xedez:

- **Atzerriko** hezkuntza sistema batetik etorri diren ikasleen kasuan, **adinagatik** dagokiona. Behar izanez gero, aukera egongo da ikastetxeko ohar atalean edozein adierazpen edo iradokizun sartzeko eskolatzeko batzordeak kontuan eduki behar duena, egoera akademikoa esaterako.
- **Beste erkidego autonomo** batetik datozen ikasleen kasuan, **historia akademikoari** dagokiona. Informazio hori eskabide unean bertan egonez gero, sartu ezazu ohar atalean.

Azkenik, ikastetxeak aldatu egingo du eskabidearen egoera **Erabaki gabe** delakora, eta **Gorde** botoia sakatuko. Kontuan eduki ezazu **eskolatzeko batzordeak bakarrik aztertuko dituela egoera horretan dauden eskabideak**, baina ez beste edozeinetan (bete gabe,...) daudenak.

Eskabidea itxitzat jo ondoren, ikastetxeak **erantsi** beharko du eskabideari lotuta dagoen **errolatzeko familiarreko ziurtagiriaren** kopia aplikatiboan; baita familiak aurkeztutako beste edozein dokumentazio nabarmen ere*.

* **OHARRA:** errolatzeko ziurtagiria kudeaketa akademikoko aplikatiboan eransteko aukera oraindik ez dago prest eskolatzeko batzordeari igorritako eskabideetarako. Erabilgarritasun hori ez dabilen artean, ikastetxeek bidaliko dute **dokumentua eskaneatu** ostean, posta elektronikoz kontu horietarako izan ohi den helbidera, mezuaren kontu gisa zera adieraziz: **ESKOLATZE BATZORDEA + ESKOLA POSTUA ESKATZEN DUEN PERTSONAREN IZENA**. Behar den unean jakinaraziko dizugu noiz gaurkotzen den aplikatiboa, horrek utziko baitu zuzenean eranstean eskolatzeko batzordearen aurrean aurkeztutako eskabideekin zerikusia duten dokumentuak.



Familiak ekarritako dokumentuen orijinalak ez dira igorriko Ordezkaritzara, ezpada artxibaturik iraungo dute ikastetxean, geroago edozer egiaztatu ahal izateko xedez.

Ikastetxeak beti emango dio familiari **eskabideko frogagiri** bat, **Eskaera inprimakia** aukerarekin zuzenean* lortuko dena. Txosten horrek ez ditu izango sartuak ikastetxeak Ordezkaritzari jakinarazi nahi izan dizkion oharrak.

* Frogagiria bakarrik lortzen da zuzenean Firefox esploratzailea erabiliz gero; Explorer erabiliz gero, lehenik gorde beharko duzu dokumentua ordenagailuan eta geroago ireki.

Izapide-ikastetxearen edo familiaren beste ezein esku-hartze gabe, **eskolatze batzordeak ebartziko du** eskabidea, eta kudeaketa akademikoko **aplikatiboak era automatikoan jakinaraziko die gertakaria parte guztiei** (familia eta ikastetxeak, izapidea egin zen zentroa ere barne, batzordeak azkenik esleitu duena izan ez arren). **Aplikatiboak idatziz eta zuzenean jarriko du dagokion matrikula alta.**

Eskolatze batzordeak **esleitutako ikastetxeak berehala beharko du harremanetan jarri familiarekin** sartzeko eguna finkatzeko xedez.

Familiak **alegazio** bat aurkeztu nahi izanez gero eskolatze batzordearen ebazpenari, bideratu ahal izango du eskabidea egin zuen ikastetxean zein esleitutako ikastetxean. Familiak aukeratutako ikastetxeak jarriko du **alegazioa** kudeaketa akademikoko aplikatiboan. Horretarako **Matrikula / Eskolatze Batzordea / Eskaera bilaketa** menutik berreskuratu egingo da hasierako eskabidea eta **Argudiatu** botoia sakatuko; horri esker pantaila bat agertuko da, non sartu ahal izango baitira familiak alegatutako zioak, eta, haren lekuan, ikastetxe, maila eta hizkuntz ereduko aukerak. Informazio hori sartu ostean, ikastetxeak aldatu egingo du eskabidearen egoera **Erabaki gabe** delakora, eta **Gorde** botoia sakatuko. Halaber, familiari inprimatuko dio dagokion frogagiria eskabide berriari buruz. Eskolatze batzordeak ebazpena jakinaraziko du, hasierako eskabidearekin egin zen bezalaxe.

Alegazioaren ebazpena arte ikaslea matrikulatutzat jotzen da eragin guztietarako hasiera batean esleitutako ikastetxean, eta **bertaratu beharra dauka derrigorrezko eskolatze adinetan.**

EAE-KO BESTE IKASTETXE BATERA LEKUALDATZEA EZOHIKO ERAZ BAIMENDU DAITEKEENEAN

Gaurtik aurrera, EAE barruan ikastetxez aldatzeko eskabideen aurrean, adierazi beharko da ezen, **Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**, burutzeko prozedura dela onartzeko ohiko prozesuan parte hartzea; hori 2015ko otsailan jarriko da martxan 2015-16 ikasturterako.

Familiaren iritziz aldatetok **ezinbestekoak eta atzeraezinak** izanez gero **bat-batean gertatutako zioengatik**, jakinaraziko ikastetxeek ez daukatela baimentzerik, eta Ordezkaritzak daukala eskuduntza erabakia hartzeko horri buruz.

Hala ere, **ikastetxeek izapidea erraztuko die familiei kudeaketa akademikoko aplikatiboan kargatuz dagokion eskabidea** (edozein ikastetxeak egin dezake, ez ezinbestez ez jatorrizkoak, ez destinakoa izan litekeenak, baina aurreikusten da normalean haietariko bat izatea).

Aipatu izapideari ekiteko baldintza da **familiak ikastetxera dokumentazio frogagiria ekartzea lekualdatzea justifikatzen duen zioari buruz.**

Zergati saihestezin eta gerora ezina baldin bada bizilekua aldatu izana, hori egiaztatzeko, eskabideak berekin eraman beharko du familia erroldatzeko ziurtagiri bat, bizileku berriko alta eguna jasotzen duena.

Ikastetxez aldatzea justifikatzen duten zirkunstantziak bestelakoak baldin balira, zioak argumentatu behar lirateke eta egokia den egiaztagiria ekarri ekintza eskatzeko.

Dokumentazio justifikagarria lortuta, eskabidea bideratzen duen ikastetxeak erregistratuko du kudeaketa akademikoko aplikatiboan lekualdatzeko eskabidea **Matrikula / Matrikularen lekualdeketa** menuaren bidez, **Berria** aukera sakatuz, eta horren bitartez iritsiko da gaur egungo matrikulara; horretatik eskatuko baita lekualdatzea. **Prozedura horren bidez soilik kudeatu daitezke gaur egun EAEn matrikulatuak dauden ikasleen lekualdatzeak.**



Hurrengo pantaila batean balioetsiko da **eskatzaileak** onartua daukala **tutoretza**, eta erregistratuta geratzen dela sakelako zenbaki bat eta/edo **posta elektronikoko helbide bat**, jakinarazpena egingo baita posta elektronikoz eta sms-ez. Zenbakia edo emaila gaurkotu edo, aurretik ageri ez direlako, sartu beharko balira, erabil ezazu ondoko botoia: **Ikaslearen datuak**.

Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden ikasleen kasuan, familia- edo egoitza-harreran, hau **egiaztatu behar duzu**: haurren tutoretza dagoeneko ez duten pertsonak ez dute zerrendan agertu behar, Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuak baizik, **haurrak lokalizatzeko kasu bakoitzean behar diren datuekin (posta-helbidea, email-a, telefonia)**. Hau **betetzen ez bada**, posta elektronikoa edo sms-ak jaso ditzakete guraso-agintea kendu zaien pertsonak eta honek **haurraren segurtasuna arriskuan jar dezake**.

Azkenik, **eskatutako lekualdatzeari buruzko datuak** kargatuko dira (zioa, familiaren justifikazioaren laburpena eta, aukerako moduan, izapidea egiten duen ikastetxearen iruzkinak kontuari dagokionez). Ikastetxea eta hizkuntz eredia adieraziko dira familiak horrela eskatzen duenean.

Datuak bete ondoren, aplikatiboan jarriko da **Delegaritzaren zain** lekualdatzearen egoera gisa eta **Gorde** botoia sakatuko. Kontuan eduki ezazu **Ordezkaritzak bakarrik aztertuko dituela eskabideak egoera horretan**, baina ez beste edozeinetan daudenak (bete gabe,...).

Eskabidea itxiztat jo ondoren, ikastetxeak familiak ekarritako dokumentuen kopia eskaneatua **erantsiko** du aplikatiboan, eskabideak berekin daraman erroldatze familiarreko ziurtagiria esaterako, baita beste edozein **dokumentazio nabarmen** ere*.

* **OHARRA**: Dokumentu eskaneatuak eransteko erabilgarritasuna eragile dago, **BAI**, ikastetxez lekualdatzeko.

Ikastetxeak beti emango dio familiari **eskabidearen frogagiri** bat, **Eskaera inprimakia** aukeraz zuzenean* lortuko dena. Aipatu txostenak ez ditu berekin eramango ikastetxeak Ordezkaritzari jakinarazi nahi izan dizkion oharrak.

* Frogagiria soilik lortzen da zuzenean Firefox esploratzailea erabiliz gero; Explorer erabiltzekotan, lehenik gorde beharko duzu dokumentua ordenagailuan eta geroago ireki.

Bideratzen duen ikastetxearen edo familiaren beste ezein esku-hartze gabe, **Ordezkaritzak ebatziko du** lekualdatzeko eskabidea, eta kudeaketa akademikoko **aplikatiboak automatikoki jakinaraziko die gertakaria parte guztiéi** (familia eta sartuta dauden ikastetxeak, izapidea gauzatu zenekoa ere barne, nahiz eta ez den lekualdatzearen ez jatorri, ez destino). Ebazpenak lekualdatzea baimentzen duenean, **sistemak zuzenean jarriko ditu dagozkion matrikulako alta eta baja**.

Esleitu den ikastetxea harremanetan jarri behako da berehala **familiarekin** sartzeko eguna finkatzeko.

IKASLEEN BAJAK

Ikastetxeek, aldez aurretik Ordezkaritzarekin komunikatu beharrik gabe, baja emango diete kudeaketa akademikoko aplikatiboan ikasleen matrikulei, honako zirkunstantzia hauetariko bat gertatzen denean:

- **Erregistro okerra** (ikasle bikoiztua ikastetxe berean,...).
- **Borondatezko baja Haur Hezkuntzan**, familiak horrela berresten duenean edo ikastetxeak dudarik gabe dakienean; azkenik benetan ikastetxean sartuko ez diren ikasle sartu berrien (oro har, 2 urteko mailan) kasua ere barne.
- **Borondatezko baja** derrigorrezko eskolatzeko adina (**16 urte**) **gainditu** ostean.
- **Beste autonomi erkidego bateko** ikastetxe batera **lekualdatzea**, **bakarrik dokumentazio akademikoaren eskabidea jaso ondoren** ikastetxe berritik.
- **Atzerrira lekualdatzea**, familiak horrela berresten duenean edo ikastetxeak dudarik gabe dakienean.
- Heriotza.

Kasu guztietan **adieraziko da** kudeaketa akademikoko **aplikatiboan bajaren zioa**. Horretarako, aldez aurretik ikaslea bilatuko da **Matrikula / Matrikula** menuaren bidez, eta **Ezabatu** aukera sakatu.



Ikastetxeek ez diete bajarik emango matrikulei, zioa EAeko beste ikastetxe batera lekualdatzea denean; izan ere, aplikatibo informatikoak egingo du era automatikoan aldaketa berresten denean.

Justifikatu gabeko ez egoteen kasuetan bajako berrespenik ez daukaten ikasleei dagokienez, absentismoko protokoloak aplikatuko dira Ikuskaritzarekin batera.

Bestelako kasurik gertatzen denean edo zalantzarik egonez gero, jar zaitez harremanetan Ordezkaritzarekin.

IKASTETXEA ESLEITZEA ESKOLATU GABEKO EAEKO ADINGABEEI

Eskola postuko eskabide bat jasotzen duzunean EAera heldu berria izan ez arren ezein ikastetxetan matrikularik ez daukan haur batentzat, jakinaraz iezaiozu **posta elektronikoz** gertakaria **Ordezkaritzari**, eta horrek erabakia hartuko du kontuari buruz, matrikularen oinarritzko datuak erregistratuko ditu kudeaketa akademikoko aplikatiboan eta gertaera adieraziko dio esleitutako ikastetxeari, horrek aipatu aplikatiboan bete ditzan gainerako datu pertsonalak, seme-alabatasunaz eta kokapenez.

Esleitutako ikastetxea berehala jarriko da harremanetan familiarekin sartzeko eguna finkatze aldera.

Tratamendu bera izango dute EAera **2 urteko mailan** eskolatu nahi dituzten umeekin batera heldu berri diren familiek; izan ere, gorago adierazi den bezala, eskolatzeko batzordeak ez du eskolatzten maila horretan.

Deseskolartzeko egoerak saihesteko xedez, garrantzitsua da ikastetxeek lehenbailehen jakinaraztea Ordezkaritzari edozein gertakari 2013-14an Lehen Hezkuntzako 6.etik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1.ra promozionatu zituzten ikasleei dagokienez, agerrarazita ez baldin badago ikasten jarraitzen dutela 2014-15 ikasturtean.

IKASTETXEEN ZUZENDARITZAREN JARRAIBIDEAK IKASTETXEZ ALDATZEKO ESKABIDEARI BURUZ GURASO BEREIZI EDO DIBORTZIATUEN KASUAN, EDO BIZIKIDETZA BUKATU DUTEN IZATEZKO BIKOTEEN EGOERAN

Oharra: jarraibideen eduki osoa erabilgarria da Sailaren web orrian, Ikastetxeak eta ikasketak / Matrikulazioa atalean.

1.- Guraso bereizi edo dibortziatuen kasuan, edo bizikidetza bukatu duten izatezko bikoteen egoeran, haietariko batek eskatzen duenean matrikulazio bat lehen aldiz edo ikastetxetz aldatzea, ikastetxeko zuzendariak ekingo dio, beste ezkontidearen adostasunaren eskakizunari dagokionez edo ez, epaian edo behin-behineko neurrien autoan xedatu den bezala guraso-agintearen erabilerari buruz hezkuntza arloan, eta haren erabaki parte eskabidearekin batera ekarri beharko da.

Dokumentu hori laster bihurtuko zaio eskatzaileari, beste ziurtasunik utzi gabe espedientearen ikastetxeko idazkariaren ohar bat baizik; bertan adieraziko du xedatu dena hezkuntzako erabakiei buruz.

2.- Xedatu izan ez balitz erabakiei buruz hezkuntza arloan, beti igorriko zenioke eskabidearen kopia beste gurasoari, esleituta daukan edo ez ikaslearen guardia eta zaintza partekatua, guraso-agintez espresuki gabetu dutela agerrarazita egon ezean.

Informazioa posta ziurtatuz igorriko da hartu izana adierazita aipatu gurasoaren posta-helbidera bidalita; eskatzaileari eskatuko zaio eskabidea aurkezteko unean bertan, baldintza gisa izapiderako ikastetxeak bere esku ez daukanean.

Haren barruan sartuko da argibide bat, esaten duena eskabidea igorriko dela baldin eta 10 egun balioduneko epean, informazioa jaso eta biharamunaz geroztik zenbatuta, guraso jasotzaileak aurkeztuko ez balu dokumenturik ikastetxetz aldatzearen aurka. Horrela eginez gero, berehala jakinaraziko zaio eskatzaileari eskabidea bideratuko dela baimentzen duen epailearen erabakia komunikatu ondoren.